

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2024ko apirila

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak % 3,5 jaitsi dira 2024ko apirilean

Eguneko batez besteko tarifa 102,5 eurokoa izan da 2024ko apirilean Euskal AEn, aurreko urteko apirilean baino % 3,6 gehiago

2024ko apirilean Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 1,7 jaitsi dira eta gualdiak % 3,5, Eustaten datuen arabera. 317.224 sarrera eta 596.368 gualdi izan dira, baina, datuak balioesteko orduan, kontuan izan behar da 2023an Aste Santua apirilean izan zela, eta 2024an, berriz, martxoan.

Sarreraren % 48,2 eta gualdien % 49,9 atzerritarrek egin dituzte: sarrerak % 8,0 igo dira eta gualdiak % 9,2. Estatuko sarreraren eta ostatu-gauen kopuruak, bestalde, behera egin du urte batetik bestera, % 9,3 eta % 13,5, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Apirila 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2024/04	m/m-12 (%)	2024/04	m/m-12 (%)	2024/04	2023/04
EUSKAL AE	317.224	-1,7	596.368	-3,5	1,88	1,92
Estatukoak	164.267	-9,3	298.722	-13,5	1,82	1,91
Atzerritarrak	152.957	8,0	297.646	9,2	1,95	1,93
Araba/Álava	40.368	-5,7	83.791	3,9	2,08	1,88
Estatukoak	28.305	-9,1	56.861	-5,1	2,01	1,92
Atzerritarrak	12.063	3,4	26.930	29,9	2,23	1,78
Vitoria-Gasteiz	30.897	-5,0	68.319	7,6	2,21	1,95
Bizkaia	138.104	-4,5	253.663	-9,1	1,84	1,93
Estatukoak	73.408	-9,4	125.958	-17,0	1,72	1,87
Atzerritarrak	64.696	1,8	127.705	0,3	1,97	2,00
Bilbao	94.501	-6,7	178.781	-9,5	1,89	1,95
Gipuzkoa	138.752	2,7	258.914	0,2	1,87	1,91
Estatukoak	62.554	-9,1	115.903	-13,4	1,85	1,94
Atzerritarrak	76.198	14,9	143.011	14,8	1,88	1,88
Donostia / San Sebastian	91.711	7,6	176.952	5,8	1,93	1,96

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Maiatzaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Arabaren 40.368 sarrera eta 83.791 gualdi erregistratu dira, aurreko urteko apirilean baino % 5,7 sarrera gutxiago, baina % 3,9 gualdi gehiago. Bizkaian, jaitsiera % 4,5ekoa izan da sarreretan eta % 9,1ekoa gualdietan, 138.104 sarrerarekin eta 253.663 gualdirekin. Gipuzkoan 138.752 sarrera erregistratu dira 2024ko apirilean, 2023ko apirilean baino % 2,7 gehiago, eta 258.914 gualdi, aurreko urteko hilabete berean baino % 0,2 gehiago.

Hiriburuen arabera, sarreraren kopurua % 5,0 jaitsi da Gasteizen, % 6,7 Bilbon eta Donostian, aldiz, % 7,6 igo da. Gaualdiei dagokienez, aurreko urteko apirilaren aldean, % 7,6 igo dira Gasteizen eta % 5,8 Donostian; Bilbon, berriz, % 9,5 jaitsi dira.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia, 2024ko apirilean, 1,88 egunekoa izan da, hau da, 2023ko hilabete berean lortutakoa (1,92 egun) baino txikiagoa.

Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Apirila 2024

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2024/04	p.p. *	2024/04	p.p. *	2024/04	m/m-12 (%)	2024/04	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	55,8	-3,2	68,5	0,3	102,54	3,6	70,22	4,0
Araba/Álava	51,7	-1,2	65,5	1,1	84,60	0,8	55,42	2,5
Vitoria-Gasteiz	54,0	-0,3	71,0	2,6	69,59	1,1	49,38	4,9
Bizkaia	53,8	-3,9	67,9	-0,3	100,51	4,7	68,24	4,3
Bilbao	62,4	-2,8	77,5	2,2	110,22	4,1	85,47	7,2
Gipuzkoa	59,5	-3,2	70,2	0,7	110,56	3,0	77,57	4,0
Donostia / San Sebastian	65,4	-3,2	76,2	1,7	128,80	1,4	98,15	3,8

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Maiatzaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2024ko apiril honetako okupazio-maila, Euskal AE osoan, % 55,8an kokatu da plazen arabera neurtuz gero, eta % 68,5ean gelen arabera neurtuz gero, ehuneko 3,2 puntu gutxiago plazen arabera 2023ko apirilean lortutakoa baino, eta 0,3 puntu gehiago gelen arabera neurtuz gero.

Errentagarritasuna, ADRren edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua (bainugela duen logela bikoitz bati aplikatua, soilik ostatu-hartzeko baldintzetan), 102,5 eurokoa izan da 2024ko apirilean Euskal AEn, hau da, % 3,6ko igoera aurreko urteko apirilaren aldean. ADR 110,6 eurokoa izan da Gipuzkoan, 100,5 eurokoa Bizkaian eta 84,6 eurokoa Araban. Hiriburuka, aldeak handiagoak izan dira; izan ere, ADR 128,8 eurotan kokatu da Donostian, 110,2 eurotan Bilbon eta 69,6 eurotan Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak 70,2 euro izan dira 2024ko apirilean, aurreko urteko hil berean baino % 4,0 gehiago.

Informazio-oharra

Hotelen ETHren 2024ko apirileko erantzun-tasa % **93,6koa** izan da. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62